



Mondragon
Unibertsitatea

Goi Eskola Politeknikoa
Escuela Politécnica Superior

GRADU BUKAERAKO LANAREN EBALUAZIO TXOSTENA ETA SISTEMA

[MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA]

2022ko iraila

0. ALDAKETEN HISTORIA

Bertsioa	Data	Egindako aldaketa
Azken bertsioa	2022.09.01	1.- Daten eguneraketa dokumentuan zehar 2.- 3.2 “Mugikortasun-egonaldietan egindako GBLen ebaluazioa” atala gehitu da
2021-22 ikasturtea	2021.09.01	1.- Daten eguneraketa dokumentuan zehar 2.- Ingeniaritza Mekanikoko eta Elektronika Industrialeko Ingeniaritzako graduetakoa eta gainerako graduko tituluaren arteko aldea kendu da. 3.- 2.2. ‘Feed-backen irismena eta jarraipen eta ebaluazioko dokumentuak’ atalean, Ebaluazioa MGEPko noten aplikazioan erregistratuko dela adierazi da. 4.- 2.3. ‘Baloratuko diren alderdiak’ atalean, CG01 konpetentzia, CTFG01 ‘Gradu amaierako lana zuzen idatzi du eta lanaren emaitza argitasunez aurkeztu eta defendatu du’ konpetentziagatik aldatu da. 5.- 2.4 ‘C1 Euskara mailaren egiaztapena’ atalean, egiaztapen hori lortzeko gainditu behar den konpetentziaren izena aldatu da. 6.- 3.1. ‘Balorazio kuantitatiboa eta kualitatiboa’ atalean, GBLan lortutako konpetentziak tituluaren Europako Osagarrian jasotzeko denaren testua ezabatu da. 7.- CTFG01 konpetentziari dagokion I eta II eranskinen plantillak eguneratu dira I. eta II. eranskinetako txantiloak eguneratu dira baloratu beharreko CTFG01 konpetentziaren alderdiei dagokionez: ‘Memoria, aurkezpena eta defentsa’.
2020-21 ikasturtea	2021.06.01	1.- Daten eguneraketa dokumentuan zehar 2.- 42 ECTStako GBLaren iraupena, 45 ECTStako GBLarengatik aldatu da dokumentu guztian zehar. 3.- Baloratu beharreko GBLen alderdiak eta dagozkien errubrikak bikoiztu eta eguneratu egin dira, dagokion titulazioaren arabera: Alde batetik Mekanikako Ingeniaritzako Gradua eta Industria Elektronikako Ingeniaritzako Gradua; eta bestetik, gainontzeko Graduko titulu guztiak.
2017-18 ikasturtea	2016.09.26	1.- Daten eguneraketa dokumentuan zehar 2.- Dokumentuaren ondoko leketan: I. atala, 2.1. eta 2.2. azpiatalak eta II.Eranskinean, zera adierazi da: bigarren Feed-backa maiatzean edo ekinean izango dela.
2016-17 ikasturtea	2016.09.30	Hasiera bertsioa Daten eguneraketa dokumentuan zehar

AURKIBIDEA:

0. ALDAKETEN HISTORIALA.....	2
5.- 2.4 ‘C1 Euskara mailaren egiaztapena’ atalean, egiaztatapen hori lortzeko gainditu behar den kompetentziaren izena aldatu da.....	2
6.- 3.1. ‘Balorazio kuantitatiboa eta kualitatiboa’ atalean, GBLen lortutako kompetentziak tituluaren Europako Osagarrian jasoaraziko denaren testua ezabatu da.....	2
1. SARRERA.....	4
2. EBALUAZIOAREN PROZEDURA, IRISMENA, IRIZPIDEAK ETA TRESNAK	5
2.1. Jarraipen eta ebaluazio partzialaren eta Amaierako ebaluazioaren prozedura.....	5
2.2. Feed-backen irismena eta jarraipen eta ebaluazioko dokumentuak.....	5
2.3. Baloratuko diren alderdiak	6
2.4 C1 Euskara mailaren egiaztapena	7
3. GBL-AREN AMAIERAKO EBALUAZIOA.....	9
3.1. Balorazio kuantitatiboa eta kualitatiboa	9
3.2. Mugikortasun-egonaldietan egindako GBLen ebaluazioa.....	10

1. Eranskina: “Otsaileko jarraipen eta ebaluazio txosten PARTZIALAREN eta AMAIERAKOAREN txantiloia”

2. Eranskina: “Maiatza edo ekaineko jarraipen eta ebaluazio txosten PARTZIALAREN txantiloia”

1. SARRERA

MGEPEko ikasketa planetan aurreikusi diren Praktika eta GBL-aren kudeaketa, tutoretza eta ebaluazioa 2014ko uztailearen 11ko 592/2014 Errege Dekretuak, ikasketa unibertsitarioetako kanpo praktikak arautzen dituena, xedatuakoari jarraituz egiten dira.

Dokumentu honetan ebaluazio sistema bat azaltzen da, ebaluatzaileek eta ikasleek ezagutzen dituzten irizpide objektiboekin Gradu Amaierako Lana (GBL) kalifikatu ahal izateko, edozein delarik horren iraupena (45 ECTS, 30 ECTS edo 12 ECTS), kontzeptu horren barruan sartuta ikasleek MGEPEko departamentu eta laborategietan garatutako proiektuak.

Gida honek gainera GBLaren eta praktiken jarraipena egin ahal izateko tutore akademiko bat edota entitate laguntzaileko tutore bat izango duela jasotzen du. Horretaz gain, tutore akademikoak eta entitate laguntzaileko tutorearen artean ebaluaketa nola burutuko den jasotzen da, hortarako erabiliko diren irizpideak eta dokumentuak azalduaz.¹

Gainera, GBLaren Gida Akademiko-administratiboak zehazten du ikasleak deskargu partzial bat egin beharko duela GBLaren aldiaren erdialdean, eta proiektuaren memoria. Dinamika horrek eskatzen du tartean jarraipen eta ebaluazio txosten bat egotea, kronologikoki ikaslearen deskargu partzialarekin bat egingo duena, eta amaierako txosten bat, GBLaren aurkezpen eta defentsarekin bat egingo duena.

Halaber, ezartzen du GBLaren tutorea izango dela proiektuaren jarraipen akademikoa egiteaz arduratuko dena, honela laburtuta:

(...) GRADU BUKAERAKO LANAREN tutorea da dagokion Proiektuaren jarraipen akademikoa egiteaz arduratuko dena. Lan horrek, labur-labur esanda, honako zereginak hartuko ditu:

Proiektuan tutoretzapean egongo den ikasleak bereganatu beharreko gaitasunak identifikatzea proiektuaren zuzendariarekin elkarlanean. 30 edo 45 ECTSko Gradu Bukaerako Lanetan, ikasleek 6 gaitasun izango dituzte bereganatzeko. Horietako bi zeharkakoak izango dira (Gradu Bukaerako Lan guztietarako) eta hiru teknikoak (Gradu Bukaerako Lan bakoitzari bereziki dagozkionak). 12 ECTSko GBLetan 3 gaitasun egongo dira elkartuta: (zeharkako biak eta GBL bakoitzari dagokion teknikoak).

GBLaren garapena zaintzea eta ikasleari gutxienez feed-back bat eskaintzea lana garatzen ari den bitartean (otsailean eta maiatza edo ekainean), identifikatutako konpetentziak zenbateraino garatzen ari den ikusteko.

Proiektuaren otsaileko deskargu partziala balioztatzea eta Proiektuaren aurkezpena baimentzea, hori amaitu eta gero. (...)

Gida horretan jasotzen da baita ere 'GBLa horretarako izendatutako Epaimahai batek ebaluatuko' duela.

Hori guztia ikusirik, dokumentu honetan jasotako ebaluazio sistema landu da, **jarraipen eta ebaluaziorako prozedura, ebaluazioaren irismena, baloratuko diren alderdiak eta eman ahal izango diren kalifikazioak** zehazten dituena. **Azkenik, jarraipen eta ebaluazio ereduak eranstu dira.**

¹ MGEPEko GBLetan, erakunde laguntzaileko tutorea da zuzendaria GBLko Gida Akademiko-administratiboan aipatzen den moduan.
GBLaren ebaluazio txostena eta sistema

2. EBALUAZIOAREN PROZEDURA, IRISMENA, IRIZPIDEAK ETA TRESNAK

2.1. Jarraipen eta ebaluazio partzialaren eta Amaierako ebaluazioaren prozedura

Graduko ikasketetan aplikatutako ebaluazio sistemarekin bat eginda, GBLaren jarraipena eta ebaluazioa etengabeak izango dira.

Gida Akademiko-administratiboak GBLaren deskargu partziala eta memoria idazteko eskatzen dio ikasleari; eta GBLaren zuzendariari eta tutore akademikoari GBLaren jarraipena eta jarduera horrek behar duen amaierako ebaluazioa egiteko eskatzen die.

Gida horretan azaldutakoa betetzeko helburuarekin, honako hau xedatzen da:

- Jarraipen txostena eta ebaluazio txostena bakar batean integratzen dira: jarraipen eta ebaluazio txostena.
- Ikasleari GBLaren hiru feed-back emango zaizkio, horietako bi PARTZIALAK: lehenengo otsailean egingo da, ikasleak deskargu partziala entregatzen duenean, eta bigarrena maiatza edo ekainean. Eta AMAIERAKO feed-back bat, GBLa aurkezteko eta defendatzeko ekintzaren ondoren.
- Otsaileko feed-back PARTZIALA elkarrekin komunikatuko dute GBLaren zuzendariak eta tutoreak.
- Maiatza edo ekaineko feed-back PARTZIALA GBLaren tutoreak komunikatuko du.
- AMAIERAKO feed-backa GBLaren ebaluazioaren epaimahaiak komunikatuko du, eta hor, besteak beste, GBLaren zuzendariak eta tutoreak parte hartuko dute.

2.2. Feed-backen irismena eta jarraipen eta ebaluazioko dokumentuak

Otsailean egindako feed-back PARTZIALA orientagarria izango da ikaslearentzat, baina ez du inolako portzentajerik ekarriko proiektuaren azken notari dagokionez. Feed-back hau MGEPko noten aplikazioan jasotzen da eta ebaluatzen diren item-ak erantsitako txantiloian jasotzen dira (**GBL-AREN JARRAIPEN ETA EBALUAZIO TXOSTENA**).

Maiatza edo ekainean egindako feed-back PARTZIALAK tutoreak lanaren aurkezpena eta defentsa baimentzeko balioko du eta hau ere MGEPko noten aplikazioan jasoko da eta ebaluatzen diren item-ak erantsitako txantiloian jasoko dira (**GBL-A AURKEZTEKO ETA DEFENDATZEKO BAIMENA**).

Proiektua kalifikatzeko izendatu den GBLaren epaimahaiak zuzendariak eta tutoreak egindako 2 txosten PARTZIALAK izango ditu.

AMAIERAKO feed-backa GBLa ebaluatzeko epaimahaiak emandako kalifikazioarekin amaituko da. Ebaluatutako item-ak erantsitako plantillan jasotakoak izango dira (**GBL-AREN JARRAIPEN ETA EBALUAZIO TXOSTENA**).

2.3. Baloratuko diren alderdiak

Jarraipen txostenak gai hauek landu beharko ditu:

Ebaluatu beharreko alderdiak	Mondragon Goi Eskola Politeknikoko Graduko titulazio guztientzat
GAITASUN TEKNIKOA.-	Esleitutako 1. kompetentzia teknikoa:
	Esleitutako 2. kompetentzia teknikoa:
	Esleitutako 3. kompetentzia teknikoa:
	Ikasteko gaitasuna
MEMORIA, PRESENTACIÓN Y DEFENSA	Memoriaren egitura
	Formatua
	Estiloa
	Edukia: arazoaren planteamendua, soluzioaren justifikazioa eta esparru arautzailea (arauak)
	Aurkezpenaren euskarria
	Aurkezpenaren ahozko azalpena
	Egindako lanaren defentsa
GBL-EAN EGINDAKO LANA ETA PRESTASUN PERTSONALA	Lanen administrazioa
	Sormena, ekimena eta motibazioa
	Erantzukizunaren zentzua eta inplikazio pertsonala
	Egokitzeko erraztasuna
PROIEKTUAK INGURUMENEAN ETA GIZARTEAN DUEN INPAKTUA	Laneko segurtasunean eta osasunean dituen inplikazioak aztertzea
	GJHek enpresan eta/edo egindako proiektuan dituzten inpaktuei buruzko azterketa
	Azterketa ekonomikoa
KRITIKAK HARTZEKO JARRERA.	
PUNTUALTASUNA	
LAN INGURUNEAREKIKO HARREMANAK.	
TALDEAN LAN EGITEKO GAITASUNA.	

Ondoren glosario txiki bat egiten da, GBLaren testuinguruan kokatzeko, esaterako:

- a) Kompetentzia teknikoa. Ikasleak bere GBLean identifikatuko ziren kompetentzia zehatzak bereganatu dituela erakutsi duen aztertuko da (1 kompetentzia 12 ECTSko GBLean eta 3 kompetentzia 30 eta 45 ECTSko GBLetan).
- b) Ikasteko kompetentzia. Ikasleak modu autonomoan ikasteko teknikak erabiltzeko gaitasunari dagokio.

- c) Lanen administrazioa. Eginbeharrak ezarritako denboran eta eskatutako kalitatearekin planifikatzeko eta gauzatzeko gaitasunari dagokio.
- d) Ahoz eta idatziz komunikatzeko trebetasunak. GBL guzietarako komuna den-CTFG01 'Gradu amaierako lana zuzen idatzi du eta lanaren emaitza argitasunez aurkeztu eta defendatu du' gaitasunari dagokio.
- e) Erantzukizunaren zentzua. Eman zaizkion betebeharrekin duen konpromisoa bereganatzeari dagokio, hau da, bere esku jarri diren materialak, makineria eta oro har ekipamendua zaintzen duela, eskatu zaion konfidentzialtasunaren betebeharrak bete dituela, etab.
- f) Egokitzeko erraztasuna. Bere ingurunera egokitzeko ahalmenari dagokio: praktikak egiten dituen erakundeko ohitura, usadio eta arauak, praktiken inguruneko pertsonak, praktikak egiteko dituen bitarteko teknikoak eta ekipamendua, etab.
- g) Sormena eta ekimena. Ideia berriak proposatzeko eta horiek modu proaktiboan garatzeko eta gauzatzeko erakutsi duen gaitasunari dagokio.
- h) Inplikazio pertsonala. GBLaren helburuak garatu eta betetzeari buruz duen parte hartze aktiboari dagokio.
- i) Motibazioa. Ikasleak erakusten duen motibazio pertsonalerako gaitasunari dagokio (ez hainbeste hirugarren pertsonena), estimulu pertsonalen bidez, eta GBLean zehar sortzen diren oztopoak, zailtasunak, erronkak eta abar gainditzeko erakutsi duen gaitasuna.
- j) Kritikak hartzeko jarrera. Ikasleak GBLaren garapen teknikoari edo txosten honetan ebaluaziorako jasotako edozein irizpideri buruz kritikak jaso dituenean erakutsi duen jarrerari dagokio.
- k) Puntualtasuna. Egunero praktiken jarduera hasteko zein amaitzeko uneari dagokio, eta GBLaren inguruan deitu duten hitzordu, bilera, bisita eta abarri.
- l) Lan ingurunearekiko harremanak. Ingurunearekin harreman eta lankidetzaren giro positiboa ezartzea, komunikazioa profesioaren alderdi nagusietako gisa baloratuz.
- m) Taldean lan egiteko gaitasuna. GBLaren inguruneko pertsonekin, helburu komun bat lortzeko, modu koordinatu eta osagarrian lan egiteko erakutsi duen gaitasunari dagokio.

2.4 C1 Euskara mailaren egiaztapena

Apirilaren 3ko 47/2002ko dekretuan, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzeko dioen 2012ko apirilaren 16ko EHAk C1 euskara mailako ziurtagiria lortzea ahalbidetzen du. Horretarako ikasleek baldintza jakin batzuk bete beharko dituzte.

C1 Euskara maila lortzeko asmoa dutenei honako hau gogorarazten zaie: Dekretuko II. eranskineko 3. puntuari zehazten duenaren arabera, Gradu Bukerako Lana edo Master Ofizialen Bukerako Lana euskaraz burutzea baldintza gehigarria ez den kasuetan, horri bakarrik dagozkion kredituak (GBLarenak bakarrik, eta ez loturik dituzten praktikak) balio bikoitza izango dutela, C1 euskara mailako ziurtagiria lortzeko beharrezkoak diren kredituen kontaketan.



GBLa euskaraz eginda dagoela aintzat hartzeko baldintzak izango dira:

1. GBLaren memoria euskaraz idatzita egotea eta aurkezpena eta defentsa ere euskaraz egitea
2. GBLaren ebaluazioan idatzizko eta ahozko adierazpenarekin erlazionatutako kompetentzia gaindituta izatea; honako hau, alegia: CTFG01 'Gradu amaierako lana zuzen idatzi du eta lanaren emaitza argitasunez aurkeztu eta defendatu du'

3. GBL-AREN AMAIERAKO EBALUAZIOA

3.1. Balorazio kuantitatiboa eta kualitatiboa

Ebaluazio sistemak bi zati izango ditu: bat kuantitatiboa eta beste bat kualitatiboa. Kuantitatiboan alderdi hauek hartuko dira kontuan:

GBLaren ebaluaziorako portzentaik
GAITASUN TEKNIKOA.- (GALaren notaren %40 da)
MEMORIA, AURKEZPENA ETA DEFENTSA (GBLaren notren %30 da)
GBL-EAN EGINDAKO LANA ETA PRESTASUN PERTSONALA (GBLaren notaren %15 da)
PROIEKTUAK INGURUMENEAN ETA GIZARTEAN DUEN INPAKTUA (GALaren notaren %15 da)

Alderdi horiek honako balio hauek har ditzakete:

Zenbakizko balioa	Balio kualitatiboa
1-2	OSO GAIZKI
3-4	GAIZKI
5	NAHIKOA
6-7	ONGI
8	OSO ONGI
9-10	BIKAIN

Balorazio kualitatiboan alderdi hauek hartuko dira kontuan:

- KRITIKAK HARTZEKO JARRERA.
- PUNTUALTASUNA.
- LAN INGURUNEAREKIKO HARREMANAK.
- TALDEAN LAN EGITEKO GAITASUNA.



Alderdi horiek ebaluatzeko BAI, EZ, BATZUETAN terminoak erabiliko dira, baina ez dute zenbakizko kalifikaziorik izango.

3.2. Mugikortasun-egonaldietan egindako GBLen ebaluazioa

Mugikortasun-akordioen esparruan egindako GBLen kasuan, honako alderdi hauek:

GBLa ebaluatzeko edukia eta ehunekoak:
GAITASUN TEKNIKOA. (GBLaren notaren % 40 da)
GBL-AN EGINDAKO LANA ETA DIPOSIZIO PERTSONALA (GBLaren notaren % 15)

ikasleak kasu bakoitzean lortutako notarekin kalifikatuko dira, xede-erakundeak ebaluatutako GBLen.

Ikasleek ezarritako eskakizunetara egokitu beharko dute GBL memoria, zehazki, EPS-MUK definitutako gidoira. Epaimahai kalifikatzaileak honako alderdi hauetan oinarrituko du bere balorazioa:

GBLa ebaluatzeko edukia eta ehunekoak:
MEMORIA, AURKEZPENA ETA DEFENTSA (GBLaren notaren % 30)
PROIEKTUAK INGURUMENEAN ETA GIZARTEAN DUEN ERAGINAREN AZTERKETA (GBLaren notaren % 15)

I. - ERANSKINA.- GBL-AREN JARRAIPEN ETA EBALUAZIOA TXOSTENA (ENPRESAKO PRAKTIKAK + GBL-A)

IKASLEA:

GBL-AREN IZENBURUA:

GBL-AREN ZUZENDARIA:

IRAUPENA:

TXOSTENAREN EDUKIA ETA EBALUAZIOA			GBL-AREN ZUZENDARIAREN TXOSTENA	GBL-AREN TUTOREAREN EBALUAZIOA						
Ebaluatze alderdiak	%	Lortutako maila	Oharrak	OTSAILEKO PARTZIALA	AMAIERAKOA	%0-%30	%30-%50	%50-%80	%80-%100	
Gaitasun teknikoa ² (GBLaren notaren %40 da)	25	Xxxxxx gaitasunaren maila ³		x	x					
	25	Xxxxxx gaitasunaren maila								
	25	Xxxxxx gaitasunaren maila								
	25	Ikasteko gaitasuna		x	x					
Ebaluatze alderdiak	%	Balorazioa	Oharrak			Bikain (10-9)	Oso ongi (8-7)	Ongi (6)	Nahikoa (5)	Gutxiegi (<5)
Memoria aurkezpena eta defentsa (CTFG01 konpetentzia) (GBLaren notaren %30 da)	60	Memoriaren egitura			x					
		Formatua		x	x					
		Estiloa		x	x					
	40	Edukia: arazoaren planteamendua, soluzioaren justifikazioa eta esparru arautzailea (arauak)		x	x					
		Aurkezpenaren euskarria		x	x					
	Aurkezpenaren ahozko azalpen									
	Egindako lanaren defentsa									
Ebaluatze alderdiak	%	Balorazioa	Oharrak			Bikain (10-9)	Oso ongi (8-7)	Ongi (6)	Nahikoa (5)	Gutxiegi (<5)
GBLean egindako lana eta prestutasun pertsonala. (CTFG02 gaitasuna) (GBLaren notaren %15a da)	25	Lanen administrazioa		x	x					
	25	Sormena, ekimena eta motibazioa		x	x					
	25	Erantzukizunaren zentzua eta inplikazio pertsonala		x	x					
	25	Egokitzeko erraztasuna		x	x					
Ebaluatze alderdiak	%	Balorazioa	Oharrak			Bikain (10-9)	Oso ongi (8-7)	Ongi (6)	Nahikoa (5)	Gutxiegi (<5)
Proiektuak ingurumenean eta gizartean duen inpaktua. (CTFG04 gaitasuna) (GBLaren notaren %15 da)	35	Laneko segurtasunean eta osasunean dituen inplikazioak aztertzea								
	35	GJHeK enpresan eta/edo egindako proiektuan dituzten inpaktuei buruzko azterketa								
	30	GBLaren azterketa ekonomikoa								

² Mugikortasun-egonaldietan GBL garatzen duten ikasleen kasuan, alderdi hori helmugako erakundeak ebaluatzen du.

³ Gaitasun ebaluagarrien kopurua GBL motaren arabera izango da (1 gaitasun 12 ECTSkoetan eta 3 gaitasun 30 eta 45 ECTSkoetan).

Ebaluatzeko alderdiak	Baremoa	Oharrak			Bai	Ez	Batzuetan		
Kritikak hartzeko jarrera.	GBLaren garapen teknikoari edo ebaluatzeko irizpideei buruz kritikak hartu dituzten erakutsitako jarrera.		x	x					
Puntualtasuna.	Egunero praktiken jardura hasteko zein amaitzeko unean garaiz ibili da, baita GBLaren inguruan deitu duten hitzordu, bilera, bisita eta abarretan ere.		x	x					
Lan ingurunearekiko harremanak.	Ingurunearekin harreman eta lankidetzaren giro positiboa ezartzea, komunikazioa profesioaren alderdi nagusietako gisa baloratuz.		x	x					
Taldean lan egiteko gaitasuna.	GBLaren ingurunean pertsonekin, helburu komun bat lortzeko, modu koordinatu eta osagarrian lan egiteko erakutsi duen gaitasuna.		x	x					

GBLaren memoria eta haren aurkezpena eta defentsa ondoko hizkuntzan egin ditu:

- GAZTELANIA
- EUSKARA
- INGELESA
- FRANTSESA (Diploma Bikoitzaren kasuan)

GBLaren amaierako nota: _____

(Otsailean orientagarria baino ez da)

Data:

Sinadura:

Tutorea:

Zuzendaria:

II.- ERANSKINA GBL-A AURKEZTEKO ETA DEFENDATZEKO BAIMENA

MAIATZEKO PARTZIALA:

IKASLEA:

GBL-AREN IZENBURUA:

GBL-AREN ZUZENDARIA:

IRAUPENA:

TXOSTENAREN EDUKIA ETA EBALUAZIOA		GBL-AREN TUTOREAREN TXOSTENA
Ebaluatze alderdiak	Lortutako maila	Oharrak
Gaitasun teknikoak ⁴ (GBLaren notaren %40 da)	Xxxxxx gaitasunaren maila ⁵	
	Xxxxxx gaitasunaren maila	
	Xxxxxx gaitasunaren maila	
	Ikasteko gaitasuna	
Ebaluatze alderdiak	Balorazioa	Oharrak
Memoria aurkezpena eta defentsa (CTFG01 kompetentzia) (GBLaren notaren %30 da)	Memoriaren egitura	
	Formatua	
	Estiloa	
	Edukia: arazoaren planteamendua, soluzioaren justifikazioa eta esparru arautzailea (arauak)	
Ebaluatze alderdiak	Balorazioa	Oharrak
GBLean egindako lana eta prestutasun pertsonala. (CG02 gaitasuna) (GBLaren notaren %15a da)	Lanen administrazioa.	
	Sormena, ekimena eta motibazioa	
	Erantzukizunaren zentzua eta inplikazio pertsonala.	
	Egokitzeko erraztasuna	
Ebaluatze alderdiak		Oharrak
Proiektuak ingurumenean eta gizartean duen inpaktua (GBLaren notaren %15 da)	Laneko segurtasunean eta osasunean dituen inplikazioak aztertzea	
	GJHeK enpresan eta/edo egindako proiektuan dituzten inpaktuei buruzko azterketa	
	GBLaren azterketa ekonomikoa	
Ebaluatze alderdiak	Baremoa	Oharrak
Kritikak hartzeko jarrera.	GBLaren garapen teknikoari edo ebaluatze irizpideei buruz kritikak hartu dituzten erakutsitako jarrera.	
Puntualtasuna.	Egunero praktiken jardura hasteko zein amaitzeko unean garaiz ibili da, baita GBLaren inguruan deitu duten hitzordu, bilera, bisita eta abarretan ere.	
Lan ingurunearekiko harremanak.	Ingurunearekin harreman eta lankidetzaren giro positiboa ezartzea, komunikazioa profesioaren alderdi nagusietako gisa baloratuz.	
Taldean lan egiteko gaitasuna.	GBLaren ingurunean pertsonekin, helburu komun bat lortzeko, modu koordinatu eta osagarrian lan egiteko erakutsi duen gaitasuna.	

GBLaren garapen maila eta memoriaren erredakzioa GBLa irakurtzeko eta defendatzeko behar bezain egokiak dira.

BAI EZ

Arrasate, xxxxxxxx(e)ko xxxxxxxxxxxxxx aren xxxxxxxx

GBLaren tutorea

⁴ Mugikortasun-egonaldietan GBL garatzen duten ikasleen kasuan, alderdi hori helmugako erakundeak ebaluatzen du.

⁵ Gaitasun ebaluagarrien kopurua GBL motaren arabera izango da (1 gaitasun 12 ECTSkoetan eta 3 gaitasun 30 eta 45 ECTSkoetan).

GBLaren ebaluazio txostena eta sistema